

Aditz batzuk bereziak dira erregimenari dagokionez: itxuraz, nor-nori-nork erregimenekoak dira, baina perpausean ez dago osagarri zuzenik (nor/zer). Mota horietako aditz batzuk dira aztergai fitxa honetan.

Utzi

● Apalean utzi du liburua irakasleak.

(nor/zer) (nork)

● Mikelek autoa utzi zion semeari jaira joateko.

(nork) (nor/zer) (nori)

● Utz nazazu bakean. (zuk, ni)

● Zenduak bere ondasun guztiak utzi zizkion ilobari.

(nork)

(zer)

(nori).

Honako hauetan, berriz, badira "nork" eta "nori"; ez, ordea, "nor":

● Amak mendira bakarrik joaten utzi zion semeari.

(nork)

(nori)

● Erretzeari utzi behar dio.

● Presioa jaisteko, irteten utzi behar diozu urari.

Heldu

- Gogoz heldu zion aitzurrari kirtenetik.
- Lepotik heldu dio lapurrari.
- Eltxoak sudurraren punta-puntan heldu zion.
- Eskutik elkarri helduta, bideari ekin zioten.
- Hurrengo kapituluan helduko diogu berriro gai honi.
- Izokin ederrak heldu zion amuari.



Eutsi

- Indarrez **eutsi zion** ezpatari bi eskuekin.
- Porrota gorabehera, lehen postuari **eutsi dio** taldeak.
- Ez du amorerik eman, eta bereari **eusten dio**.
- Ozta-ozta **eutsi zion** hitzaldiaren hariari, zarata zela eta.
- Erritmoari **eutsi behar** diozu.



● Eutsi zaldiaren gainean!



Oratu

- Indarrez **oratu zion** paparretik gizonari, eta zakar astindu zuen.
- Besotik **oratu zion** Realeko jokalaria.
- Ur-ponparen eskutokiari **oratu zion**.
- Ozta-ozta **oratu diote** adaxkari.
- Baina hortik **orutzen** diozu beste auzi bati.
- Michael Moorek Estatu Batuetako botereguneei eragiten dien gai **bati oratu dio**.

- Opilaren osagai guztiak nahasi, irabiatu eta **oratu** egingo **ditugu**



(oratu = oreaga egin)

Eraso

- Alemaniak Errusiari eraso zion.
- Txakurrari harrika eraso diote eskola-umeek.
- Piratek marinelen itsasontziari erasoko diote.
- Gosearen gosez, tartari eraso zion.
- Goizero eraso behar diot lanari.
- Ideia berriak erabiliz eraso behar zaio krisiari.

- Zoro antzean eraso zidan.
- Zoro antzean eraso zuen. (Zoro antzean oldartu zen.)



Gogoratu: aditza eraso da, ez erasotu.

Ekin

- Fitxa idazteari ekingo diot.
- Gure izaera aldarrikatu eta indartzeari ekin diogu.
- Etxea okupatu eta biziberritzeari ekin diogu.
- Bildumetako argazkiak erabiltzaileekin partekatzeari ekin diogu.
- Eusko Jaurlaritzak bioaniztasuna babesteko estrategia zehatz bati ekingo dio.
- Beste gai bati ekingo diogu.
- Zerbitzu informatikoen berrikuntzari ekin diogu.
- Ekin bideari!

